

Prentsa oharra

FRESH EikenBANK, EikenBANKeko proiektu irabazleen *pitching* saio berezia, irailaren 1ean Villa Suso Jauregian

Talentu ez-profesionala bilatzea xede duen EikenBANK programako proiektu irabazleak Gasteizko FesTVal jaialdian izango dira, Eikenen eskutik

Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren EikenBANK programa, gazte ez-profesionalen artean sormena bultzatu eta sormen hori ikus-entzunezkoen industriarekin harremanetan jartzeko helburua duena, Gasteizko Telebista eta Irrati Jaialdiaren hurrengo edizioan egongo da, FRESH EikenBANK ekimenaren bitartez. Lehen aldiz egingo den ekitaldi honen barnean, *pitching* saio berezi bat egingo da, EikenBANK programako azken edizioetako irabazleen eta proiektu horien ekoizpenaz arduratu diren etxeen arteko elkarlanaren emaitza aurkezteko.

Ekitaldia irailaren 1ean egingo da, Arabako hiriburuko Villa Suso Jauregian, FesTVal jaialdiaren egitarauaren barnean, eta estatu osoko ekoizpen eta banaketa etxe garrantzitsuenetako ordezkariak izango dira saio horretan. Ekitaldiaren zatirik handiena lehen FRESH EikenBANK *pitching* saiorako hautatu diren hiru proiektuen aurkezpenari eskainiko zaio (EikenBANK programako lehen hiru edizioetako irabazleak).

Zehazki, hiru proiektu hauek aurkeztuko dira: "Pintxos" (2008ko irabazlea, 3Koma etxeak ekoitzia eta ETBk jada emititua), "Master Free" (2009ko proiektu irabazlea eta K 2000 etxeak ekoitzia) eta "20Ti" (2010eko irabazlea eta Baleukok ekoitzia). Proiektuen "defentsa" sustatzaileek bere egingo dute, ekoizpenaz arduratu diren etxeen laguntzarekin. Azken edizioetako irabazleak ("Gelditu Parada" proiektua) ekoizpen prozesuari ekin berri dio, Pausoka etxearekin.

EikenBANK, talentua eta enpresa

FRESH EikenBANK Eikenek 2008an martxan jarri zuen EikenBANK programaren azken berrikuntza da. Programaren helburua talentu sortzaile ez-profesionala bilatzea da, eta talentu hori enpresekin harremanetan jartzea. Programaren azken edizioan ia ehun pertsonak parte hartu dute, 64 proposamen originalekin, eta sari banaketa ekainaren hasieran egin da. Guztira, 200 ideia eta proiektu baino gehiago aurkeztu dira EikenBANK programara, 2008an abian jarri zenetik.

Programaren sariak eta aitortpenak handituz joan dira pixkanaka. Lehen edizioan sari bakarra izatetik, azken edizioan bigarren eta hirugarren sariak ere ematera eta aipamen bereziak egitera igaro da. Aurten, gainera, hiru beka ere eman dira, Bilbao Lan Ekintza eta BBK Gazte Lanbidean elkarrekin babesari esker.

EikenBANK programak Klusterreko hamabi enpresa biltzen ditu: **3Koma, Baleuko, BartonFilms, Canal Bizkaia, EITB, Idem, Irusoin, Jarkatza, K2000, Orio Produzioak, Pausoka eta Signo digital**. Gainera, instituzioen babesa ere badu: Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza eta Merkataritza Saila eta Kultura Saila; Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila; Bilboko Udala; eta Bilbao Lan Ekintza eta BBK Gazte-Lanbidean elkarteak.

Erakunde hauek begi onez hartu dute enpresa lehiakideek –Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektoreko garrantzitsuenek– indarrak batu izana talentu ez-profesionalaren aldeko proiektu batean. Instituzio publikoen babesaz gainera, aipatzekoak dira ere hezkuntza mundutik ekimen hau bultzatzen duten erakundeak: UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta EAEko Ikus-entzunezkoen Ikasketa Zentroak eta Zine Eskolak.

Bilbo, 2011ko uztailaren 27

Informazio gehiago:

MBN Komunikazioa

Javier Palacios

Tel.: 94 435 63 30 / 628 538 199

www.eikenbank.com